

# KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure proiektua gauzatzeko komunikazioa ezinbesteko elementua da. Jendeak gure funtzionamendua ulertu behar du. Gainera, geroz eta jende gehiagok Goiana ezagutu, partaide gehiago edukiko ditugu eta birziklapena areagotuko da. Horrela gure helburutik, hots, zikinkeria gabeko kaleak egotetik, gertuago egongo gara eta jendea arazoaz kontzientziatuagoa egongo da.

Gure lana publizitatearen bitartez zabalduko dugu. Alde batetik, publizitate fisikoa erabiliko dugu. Adibidez liburuxkak, kartelak... kaleko jendeak gure proiektuaren berri izan dezan. Kanean milaka kartel ikusten ditugu egunerokotasunean, beraz gure kartelak deigarriak egingo ditugu irudiak eta kolore deigarriak erabiliz, jendeak ikusteko eta irakurtzeko.

Bestalde, sare sozialak erabiliko ditugu gure proiektua zabaltzeko. Dakigun bezala, gure egunerokotasunean sare sozialak asko erabiltzen dira, beraz, oso erraz zabalduko dugu gure proiektua. Horretarako, iragarkiak jarriko ditugu gazteek gure proiektuaren berri edukitzeko, baita gure bizitokitik kanpo dagoen jendearengana (eta hortaz fisikoki iritsi ezin gaitezkeenarengana) iristeko erabiliko dugu.

